



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

Prentsa-oharra

Azaroak 7. Bizkaiko Batzar Nagusien Gizarte Ekintza Batzordearen batzarra

Inoren laguntza behar daben pertsonen eta ezintasundunen egoerea eta sorospen-beharrizanak aztertzeko Lantaldearen ondorio eta iradokizunen gaur eguneko egoerea

- Gizarte Ekintzako Diputatu andrea batzorderatu egingo da Talde Sozialistearen eskariz, argibideak emoteko Lantaldearen ondorioak eta iradokizunak martxan jarteko Aldundiak egindakoari buruz.

Bilbon, 2012ko azaroaren 6an.

Pilar Ardanza Gizarte Ekintzako Foru Diputatu andrea bihar batzorderatuko da Bizkaiko Batzar Nagusietan azalpenak emoteko Inoren laguntza behar daben pertsonen eta ezintasundunen egoerea eta sorospen-beharrizanak aztertzeko Lantaldearen ondorioak eta iradokizunak martxan jarteko Aldundiak egindakoari buruz. Dokumentu hori aurreko agintaldian, 2011ko martiaren 14an, onartu zan, batzarkideen gahiengoz onartu be. Sozialistek dinoenaren arabera, Txosten horretan, hiru urteko lanaren ostean, laburbildurik dagozan iradokizunen bitartez —guztira berrehun baino gehiago— “kalidadezko sorospena eta mendekotasun egoeran dagozan pertsonen benetako gizarteratzea lortzera” bideratutako iradokizunak, besteak beste.

Goizeko 10:00etan hasiko dan batzar horretan Diputatu andreak erantzun egin beharko deutso Antolamendu farmazeutikoaren legeari buruz Bildu Taldeak egindako “ahozko erantzun-eske” bati. Talde horrek galdu egiten deutso Diputatu andreatik ea “Antolamendu farmazeutikoaren legea berdina izanik EAEn, zergatik erabiltzen dan sistema ezbardina herrialde bakoitzean” eta “sendagaien dispentsazioa” ea zergatik “zentralizatzen dan farmazia konkretu batzuetan”.

Gizarte Ekintzako Batzorderen bilera horretan Bildu Taldearen Arauz Besteko Proposamen bi be bideratuko dira. Horreitariko lehenengoan eskatu egiten jako Bizkaiko Foru Aldundiari Familia barruko zaintzarako prestazioa arautzen dauen 179/2011 Foru Dekretuan bateragarritasun eta bateraezintasunari buruzko araubidean aldaketa batzuk egin dagizala; izan be, Dekretuaren 3. artikuluan, “bateragarritasun horretan etxez etxe laguntza zerbitzuaren presentzia faltan botatzen” dabela arrazoitzen dabe-ta Bildu Taldekoek.

Hurrengo Arauz Besteko Proposamena Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Planari buruzkoa da. Ekimen horregaz, bada, Bilduk eskatzen dau “Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak Plan hori onartu baino lehen, epe bat zabaldu dezala Bizkaiko Batzar Nagusietako batzarkide-taldeek Planari ekarpenak egiteko” (...) “jakinda Plan horrek Bizkaian hurrengo urteetan (2012- 2015) bultzatuko diren berdintasun-politiken norabidea finkatuko duela”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

Convocatoria de prensa

7 de noviembre. Comisión de Acción Social de las Juntas Generales de Bizkaia

Situación actual de las recomendaciones de la ponencia sobre personas dependientes y discapacitadas

- La Diputada de Acción Social comparecerá, a petición del Grupo Socialista, para conocer las “medidas puestas en marcha” por la Diputación en relación a este trabajo aprobado en las Juntas Generales.

Bilbao, a 6 de noviembre de 2012.

La Diputada foral de Acción Social, Pilar Aranza, acudirá mañana a las Juntas Generales de Bizkaia para informar de las medidas “puestas en marcha” por la Diputación en relación a las conclusiones y recomendaciones que se hicieron en la Ponencia sobre Situación y Necesidades de las Personas Dependientes y Discapacitadas, documento que fue aprobado en la legislatura pasada, concretamente el 14 de marzo de 2011, por una amplia mayoría parlamentaria. Según el grupo socialista, el informe final que sintetiza un trabajo de más de tres años, incluye más de doscientas recomendaciones encaminadas a “lograr una atención de calidad a las personas que se encuentran en situación de dependencia”, entre otras cosas.

En la misma sesión, que comenzará a las 10.00 horas, la diputada deberá también responder a una “pregunta oral” en la que el Grupo Bildu solicita información sobre el modelo de distribución farmacéutico que se utiliza en Bizkaia. Este grupo pregunta a la responsable foral por qué el sistema actual, que debiera ser común en todo el País Vasco, es diferente en cada territorio, y el motivo por el que la dispensación de medicinas se “está centralizando en una serie de farmacias concretas”.

La Comisión de Acción Social tratará dos Proposiciones No de Norma de este grupo para instar a que la Diputación incluya unas modificaciones en el desarrollo de la ley de dependencia, en concreto en el Decreto Foral de 9 de diciembre de 2011, en relación a la compatibilidad de las distintas ayudas sociales. En el artículo 3 de esta norma, “echamos en falta la presencia del servicio de ayuda domiciliaria” en el entorno familiar, justifican en el escrito.

El futuro IV Plan Foral de Igualdad de Hombres y Mujeres es el destino de otra iniciativa de la coalición abertzale. Bildu quiere que la Diputación se comprometa a escuchar las “aportaciones” de los grupos junteros antes de que el Consejo de Gobierno apruebe este documento, que “establecerá las líneas de actuación de las políticas de igualdad que se desarrolle en Bizkaia durante los próximos años (2012-2015)”.